

MUNBERRI

Mundu berri baten ikaskuntza.



Endika Ruiz de Arbulo, Laaraj Hajar, Laia Mateo eta Haizea Vicente
STARTINNOVA proiektua, Vitoria - Gasteiz
1 batxillergoa, 2022/2023

1. MERKATUAREN SEGMENTAZIOA

Gure helburua betetzeko aurrera aterako ditugun tailer eta kurtsoak ez dira adin guztietako gazteentzat izango. Hamabi eta hogeit hamar urteren artean dauden edozein gazte gozatu eta parte hartu ahal izango du.

Hainbat segmentu ezberdinetara bideratuko dugu gure proiektua:

Hasteko, partikularrei, eskeintzen ditugun formakuntzak jaso nahi dituzten gizabanakoei, alegia. Horrela, etxez-etxeko klasea egiteko aukera daukagu. Biak ados badaude, gure langileak bezeroen etxera joan ahal izango dira gure zerbitzua eskaintzera. Gainera etxez-etxeko zerbitzua oso baliagarria da, baliteke bezeroen bat mugikortasunerako arazoren bat izatea. Horrelako kasuak emango balira, gu haiengana joan ahalko ginatke.

Beste alde batetik, Sektore Publikoari ere bideratuko dugu gure zerbitzua, herri ezberdinetako udaletxeei, alegia. Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako udaletxe guztiei eskeinitako dizkiegu gure ikastaroak. Ikastaro horiek, Gizarte Etxeetan eskeinitako ditugu, beste edozein motatako ekintzak bezala, udaletxe bakoitzak daukan urteko programaren barnean.

Ikastetxeek, publiko zein pribatuak ere izango dute aukera gure tailerrak kontratatzeke. Gure ikastaroak kontratatuko dizkigute, ikasleei ekintza osagarri bezala eskeintzeko. Gazte askori zuzen-zuzenean heltzeko modurik onena da eta horrela ikasleen interesa pizteko aukera izango dugunez, behar bada tailerrak bukatu eta gero Gizarte Etxeetan emango ditugun tailerretara joateko aukera kontuan hartzen dute.

Gainera, langile sindikatuetan dauden pertsoneri ere dago gure zerbitzua bideratuta. Gehienak gazteak ez izan arren, gure tailerretan parte hartzeko aukera izango dute.

Bukatzeko, beste erakunde batzuei ere eskainiko dizkiegu gure ikastaroak: adibidez, Emakunde erakunde publikoari. Han gure kurtso guztiak praktikan jarriko ditugu gure bezeroekin.

Gure elkarteko bezerorik garrantzitsuenetarikoa beste hiri batera bizitzera joan edo joango diren nerabeak edo gurasoen hainbat kontzeptuen azalpenak jaso ez dituzten nerabeak dira. Mundu osoko gazteak jasoko ditugu gure elkartean, estatuan jaiotakoak eta baita etorkinak ere. Gure tailerren helburua pertsonak gizarteratzea da, gizarte batean ondo eta modu erraz batean moldatzeko gaitasuna izateko hainbat gai landuko ditugu. Batez ere, oinarrizko hezkuntza jasotzeko aukerarik izan ez duten gazteei zuzenduta dago gure proiektua. Emigratzaile, umezurtz edo, besterik gabe, hainbat arrazoiengatik (adibidez, familia-egoera txarra) hezkuntza orokor hori jaso ezin izan duten haur eta gazteentzat.

Gainera, interesa daukaten edo gauza berriak ikasteko prest dauden gazteentzat sortu dugu balore hau, jakintza oso eta praktiko bat lortzeko asmoz. Gure bezero gehienak oraindik ikasten egongo dira, hori egiteko aukera izan badute, eta gero haien eskoletan jasotzen duten hezkuntza osatu dezaten jasoko dituzte gure zerbitzuak.

Hasiera denez, gai bakoitza ematen den klasean hamabost pertsona inguru egotea irakasle bakar batekin adostu dugu. Plangintza horrekin dena ondo badao, baliabide gehiago

lortzeko gaitasuna izango dugula estimatzen dugu, beraz, irakasle edo aditu gehiago parte hartuko dutela gure proiektuan kontuan hartuta, ikasle gehiago izan ahal izatea espero dugu. Horrela, hogeitabost ikasle izateko klase bakoitzeko.